

ETXEKO HONDAKINAK ETA ARROPA JASOTZEKO ZERBITZU BERRIA ETA EDUKIONTZI BERRIAK BOST HERRIETAN



Urola Kostako Udal Elkarteak hondakinak gaika biltzeko zerbitzua indartuko du, izan ere, orain arte arropa jasotzeko erabiltzen ziren edukiontzia kendu eta berriak jarriko ditugu. Edukiontzi berrietan arropa eta etxeko hainbat hondakin jasoko dira edukiontzi berean. Datozen egunotan edukiontzi berriak jarri eta zerbitzu berria martxan izango da.

Zerbitzu berriaren helburua da etxeko hainbat hondakin bereiz jasotzea eta berrerabiltzeko bidean jartzea.

Zerbitzu horren kostua 23.870,01 eurokoa da urtean. Orain arte arropa eta ehunak jasotzeko zerbitzuak antzeko kostua zuen eta Udal Elkarteak lortu du kostu berarekin zerbitzu hobea eskaintzea (hondakinen gain etxeko hondakin txikiak jasotzeko).

Hona hemen jasoko diren hondakinen zerrenda eta, ondoren, edukiontzira bota behar ez direnak:

Edukiontzian UTZI BEHAR DIRA

- **Arropa eta ehunak:** jatzeko arropa, etxeko arropa, poltsak, gerrikoak, oinetakoak...
- **Jostailuak:** panpinak, jostailuzko kotxeak, pelutxeak, puzzlea, mahai-jolasak, pilak dituzten jostailuak, sehaskak, motxilak...
- **Liburuak:** denetariko liburuak
- **Aparailu elektriko eta elektronikoa txikiak:** erreminta elektrikoak, etxeko tresna elektriko txikiak, kamerak, telefonoak, ordenagailu eta produktu informatikoak, bideo kontsola eta jolasak, telebistak eta ordenagailu pantailak, teklatuak, organo elektronikoak, mp4ak, DVD eramangarriak...
- **Bitxiak edo bisuteria:** lepokoak, pultserak, eraztunak...
- **Bazarra:** erremintak, tresnak, sukaldeko ontziak eta gauzak, figuratxoak, koadroak, lanparak...

Edukiontzian EZ UTZI



- Kristaleria, baxera, ebakitzeko gauzak (labanak, guraizeak, cuterrak...), garbikariak, produktu urratzaileak, pilak, pertxak...
- Bolumen handiko hondakinak (koltxoiak, etxeko tresna elektriko handiak, besaulkiak...)
- Etxeko hondakin arriskutsuak: aerosolak, pinturak, disolbatzaileak...

Azken hondakin horiek garbigunera eraman behar dira. Eskualdean hiru garbigune ditugu herritar nahiz gremio txikiek erabiltzeko (Zarautz, Zumaia eta Aia-Orion).

Nola utzi hondakinak

Arropa eta ehunkiak utzi behar dira poltsetan sartuta. Gainerako hondakinak utz daitezke poltsetan sartuta edo bere horretan.

Zer egingo da jasotako hondakinekin

Zerbitzu hori Rezikleta Kooperera enpresak eskainiko du.

Enpresa horrek lehendabizi hondakinak sailkatu egiten ditu eta aztertu egiten du zein egoeran dauden. Horren arabera, hondakinak bi bide hartzen ditu:

Berrerabili: ondo dauden gauzak txukundu, konpondu eta prestatu eta saldu egiten ditu, bigarren eskuko produktu gisa.

Birziklatu: egoera txarrean dauden edo berrerabili ezin diren gauzak birziklatzera bideratzen dira, materialaren arabera dagokion plantara bideratuz.

Edukiontzi berriak bost herrietan

Zerbitzua berria eskaintzeko edukiontzi berriak jarriko dira, guztira 25, orain arropa jasotzeko edukiontziak dauden lekuetan: Aian 2, Getarian 3, Orion 4, Zarautzen 10 eta Zumaian 6. Hona hemen kokapen zehatzak:

AIA, 2: Anbulategia, Garbigunea

GETARIA, 3: Balentziaga kalea, Frontoi atzea, A. Agirre lehendakaria plaza

ORIO, 4: Anibarko portua, Arrantzale-Abeslari, Iturbide-Nagusia, Kaia kalea

ZARAUTZ, 10

Allemendi 2, Masusta jatetxea

Altzola kalea, Anaiak taberna

Garbigunea

Zuberoa kalea, Kiroldegia

Araba kalea, Maxi Eroski

Araba kalea, Maxi Eroski

San Frantzisko kalea, Frontoi txikia

Nafarroa kalea, Erramu-Iturrin

Pilartxo Enea

Mitxelena kalea, Caritas

ZUMAIA, 6: Alai auzoa, Amaia plaza, Basadi auzategia, Garbigunea, Oikia, Otezuri

NUEVOS CONTENEDORES PARA LOS TEXTILES Y OTROS RESIDUOS DEL HOGAR SE INSTALARÁN EN BREVE EN LOS CINCO MUNICIPIOS



La Mancomunidad va a reforzar la recogida selectiva de los residuos urbanos con la instalación de nuevos contenedores para recoger tanto ropa y textiles usados y como otros residuos del hogar, al objeto de fomentar la reutilización. Los nuevos contenedores sustituirán a los instalados actualmente para la recogida de textiles. Los nuevos contenedores se instalarán durante los próximos días-

A continuación se señala la relación de los residuos que se pueden depositar en el nuevo contenedor:

SÍ depositar

- **Textiles:** ropa de vestir, ropa del hogar, bolsos, cinturones, calzado...
- **Juguetes:** Muñecas, coches, peluches, puzzles, juegos de mesa, juguetes de pilas, cunas, coches, móviles de cuna, mochilas,...
- **Libros:** Todo tipos de libros
- **Pequeño aparato eléctrico y electrónico:** Herramientas eléctricas, pequeño electrodoméstico, cámaras, teléfonos, ordenadores y productos informáticos en general, video consolas juegos, televisores y pantallas de ordenador, teclados, órganos electrónicos, mp4, DVD portátiles
- **Bisutería:** Collares, pulseras, anillos.
- **Bazar:** Herramientas, instrumentos, menaje de cocina, figuritas, cuadros, lámparas.

NO depositar

- Cristalería, vajilla, elementos cortantes (cuchillos, cuters, tijeras...) productos de limpieza o abrasivos, pilas, perchas.
- Residuos del hogar voluminosos (colchones, sofás, electrodomésticos...).
- Residuos peligrosos del hogar: aerosoles, pinturas, disolventes...

Estos últimos residuos deben depositarse en los garbigunes. En la comarca disponemos de tres garbigunes: en Zarautz, Zumaia y Aia-Orio.

Cómo depositar los residuos

La ropa y textiles usados deben depositarse dentro de bolsas. El resto de los residuos puede depositarse directamente.

Destino de los residuos: reutilización y reciclaje

El servicio de recogida y reutilización va ser prestado por la empresa Rezikleta Kooperera.

Tras el vaciado y recogida de los contenedores, la empresa encargada clasifica los residuos y valora su estado. Dependiendo del mismo, los residuos recogidos pasan a procesos de reutilización o de reciclado:

Reutilización: los objetos en buen estado susceptibles de reutilización son limpiados, clasificados y preparados para su venta en establecimientos de artículos de segunda mano.

Reciclado: los objetos no susceptibles de reutilización son trasladados a las plantas de reciclado correspondientes, dependiendo de sus materiales.

Nuevos contenedores en los cinco municipios

Los nuevos contenedores se instalarán en los puntos donde están ubicados los contenedores de ropa y textiles en la actualidad. En total se instalarán 25 contenedores (2 en Aia, 3 en Getaria, 4 en Orio, 10 en Zarautz y 6 en Zumaia), en los siguientes puntos:

AIA, 2: Anbulategia, Garbigunea

GETARIA, 3: Balentziaga kalea, Frontoi atzea, A. Agirre lehendakaria plaza

ORIO, 4: Anibarko portua, Arrantzale-Abeslari, Iturbide-Nagusia, Kaia kalea

ZARAUTZ, 10

Allemendi 2, Masusta jatetxea

Altzola kalea, Anaiak taberna

Garbigunea

Zuberoa kalea, Kiroldegia

Araba kalea, Maxi Eroski

Araba kalea, Maxi Eroski

San Frantzisko kalea, Frontoi txikia

Nafarroa kalea, Erramu-Iturrin

Pilartxo Enea

Mitxelena kalea, Caritas

ZUMAIA, 6: Alai auzoa, Amaia plaza, Basadi auzategia, Garbigunea, Oikia, Otezuri